

Bidebieta

Budaren arrastoa

Duela aste gutxi, Drukpa Choe Dje Ling gune budista zabaldu dute Zedro plazan. Kandlei darien usaina somatzen da egoitzara sartu eta berehala. Kolore gorria da nagusi. Hormetan zenbait argazki eta tapiz dituzte, eta zoruan, berriez, kuxin itxurako eserlekuak.

Ander Gortazar


Bidebietako gune budista ez da Donostian zabaldutako lehena. Pilar Arrieta bertako arduradunetako batek azaldu digunez, duela gutxi arte Grosen zegoen 'Rinchen Norbuling' egoitzaren jarraipen modukoa da Zedro plazakoa: "Aldea da orain badugula

kontzientzia-gidari bat: Gyalwang Drukpa XII.a. Berak eskatu zigun, gainera, Ramon Maria Lili kaleko lokala utzi eta Bidebietara etortzea. Egoitza umilagoo nahi zuen, espiritualtasunean arreta gehiago jartzeko".

Drukpa Choe Dje Ling gune budistakoek hitzaldiak, ikastaroak eta bidaiak antolatzeari ekin diote. Ekaina bukaeran Indiako Ladakh herrira joateko asmoa dute, bertan budismoarekin lotutako ospakizun garrantzitsua egingo baita. "Naroparen 6 ornamentuak izeneko ospakizuna 12 urtean behin egiten da, eta Ladakh herrian 100.000 pertsona inguru biltzea espero da", azaldu digu Pilarrek.

Bertako lama

Auzoko egoitzako lagunek lama bat Donostiara etortzea nahi lukete, gune budista ber-




Gyalwang Drukpa XII.a kontzientzia-gidaria.

tatik bertara zuzen dezan. Izan ere, kontzientzia-gidariak, beste hainbat lekutan lan handia duela eta, urtean behin baino ezin du gurera etorri. Bestalde, filosofia budista ezagutaraztea eta Euskal Herrian zabaltzea dute helburu. Pilar Arrietak nabarmendu digunez, Tibetek eta Euskal Herriak antzekotasun ugari dituzte: kulturarekiko konpromisoa, elkartasuna, naturarekiko maitasuna, bake nahia.... Gainera, bere ustez, euskal herritarrok budistengandik badugu zer ikasi. "Budistek oztopo guztien gainetik beren nortasunari eutsi diote, gorrotorik gabe gainera". Budisten bakezaletasunaren adibide gisa, honakoa aipatu digu Pilarrek: "Txinatarrek Tibet inbaditua duten arren, eta bertan budismoa guztiz debakaturia egon arren, budistek txinatarren alde otoiitz egiten dute".

Budista txokoa ezagutu nahi duenak astearte eta ostegunetan, 20:00etatik 22:00etara egoitzara joatea besterik ez du.

Jaietako danborrada

Maiatzaren azken asteburuan, Txanpon txo jalak izango ditugu auzoan eta urtero bezala, danborrada izango da jaietako ekitaldi nagusienetako bat. Danborradako entseguak Julio Urkixo kaleko Mendiola Ikastetxean izango dira hilaren 4an, 6an, 11n, 13an, 18an, 20an eta 25ean, 19:30ean. Edozein auzotarrek parte har dezake.



IRUTXULOK banatzaileak behar ditu

IRUTXULO n banatzaileak behar ditugu, ostiraletan aldizkaria banatzeko. Prest zaudetenok honako telefono honetara deitu besterik ez duzue: **943458408**.